


Lea Artibai


Sentsasioz **blai**





Denboran luzaroan iraungo duen bidaiari ekitera zoaz, Lea Artibain biziko duzun esperientzia bidaia-lagun izango baituzu aurrerantzean ere. Begiak itxi eta Kantauriko olatuek atsedean hartzen duten hondartzetan jarraituko duzu etzanda. Ez zara jaitsiko paisaia paregabeen artean altxatzen diren tontorretatik. Han bertan jarraitzen duzu; dena urrun eta dena gertu. Izan ere, bidaiariaren eta eskualdearen arteko lotura hau betirako da. **Amoroto, Aulesti, Berriatua, Gizaburuaga, Etxebarria, Ispaster, Lekeitio, Markina-Xemein, Mendexa, Munitibar-Arbatzegi-Geirikaitz, Ondarroa, Ziortza-Bolibar.** Inoiz ez dira arrotz izango.

Zeu ere ez. Senti zaitetz etxean. Historiako nabigatzaile handiak atera eta sartu dira gure portuetatik, eta etengabeko hartu-eman horren ondorioz jende adeitsua da gurea, nortasun handikoa, eskualdeko tradizioak harrotasunez maitatzen duena. Zeruari eta lurrari begira bizi izan dira luzaroan baserritarrak, urtaroen joan-etorriaren menpe, eta olatuen eta barealdien gatibu izan dira marinelak ere. Naturak moldatu egin gaitu, eta guk naturara egokitzen asmatu dugu. Horregatik ditugu hamaika kolore eta hamaika zapore, udaberriaz nahiz neguaz gozatzeko: itsasoaren urdin gazia, errekaen gardentasun garbia, hondar horixken berotasuna, zelai berdeetako garbitasuna, olatu indartsuen lilura, basoetako hosto gorriak udazkenetan.



Hondartzan utzitako oinatza, zure oroimeneko arrasto

Kantauri osoko kostaldea bezala, **itsasargiek** Lea Artibaiko itsasbazterra ere jagoten dute. Gaueroko zaindari, haiei esker orientatzen dira zeru ilunean nabigatzen dabiltzan marinelak. Peregabea da eskualdeko paisaia: etengabe sartu eta irteten diren amildegien artean hareak azaleratutako **hondartza** ederrak aurkituko ditugu, harrizko **kala** baketsuetatik gertu. Itsasoak atsedeen hartzen duen egunetan, gainera, **txalupe**z betetzen da ur-gaina, lehorretik zelatan dauden begiradei lasaitasun beteko paisaia eskainiz.



Lekeitio



Santa Katalina itsasargia

Itsasoaren handitasunari begira, galdera asko egiten dizkiogu geure buruari. Nolakoa zen etxerako buelta baleak ehizatza ateratzen ziren arrantzaleentzat? Zer sentitzen zuten Kantauriko itsaso harroek preso harrapatzen zituztenean? Erantzun asko aurkituko ditu bidaiariak Santa Katalinako itsasargian. Garai batean farozainaren etxea izandakoa, Nabigazioaren Teknologiaren Interpretazio Zentroa da gaur egun. aurreneko itsasargi bisitagarria. Txalupa birtual batera igota, marinelek mendeetan zehar erabilitako teknikak bereganatuko ditu bisitariak, ontzia gobernatu eta hainbat ezustekori aurre egiteko.



Karraspio (Mendexa)

Aniztasuna eta kalitatea, hondartzetako bandera

Kantauriko olatuak iristen diren txokoetako bakoitza, atsedan hartzeko leku paregabea da. Halere, kilometro gutxian zaila da aurkitzea Lea Artibaiko itsasertzak eskaintzen duen aniztasuna. Erosotasuna eta beharrezko azpiegitura guztiak aurkituko ditu herri barruko hondartzetara hurbiltzen denak. Lekeitioko, Mendexako eta Ondarroako hondartzak ezagunak dira, ur apartagatik eta urtez

urte jasotako kalitatezko ziurtagiriengatik. Maila berean kokatzen da Ispasterreko Ogella hondartza, baina bada berezitasun bat desberdin egiten duena: haren ingurune basatia.

Lasaitasuna eta bakardadea nahi duenak, aldiz, kala zoragarriak aurkituko ditu Ondarroatik Lekeitiiorako bidean, leku urbanoetatik urrun, itsasertzeko paisaia paregabearen izkinetan.





Karraškiok pasealekua.

Kresal usaina darien paseoak

Kostaldean bizi den jendeak itsasoaren hutsunea sentitzen du handik urruntzen denean. Ez da bat ere harritzekoa. Nor ez da lasaitu harkaitzen aurka hiltzen diren olatuek sortutako doinu lasai-garriekin? Edo nor ez du sentitu brisa leunaren laztana masailean? Goxotasun hori aurkituko du, hain zuzen ere, Lea Artibaiko itsasertzera hurbiltzen denak: abiatu **Ondarroako portutik Saturrarango hondartzaraino**, kostaldeko txokorik ederrenaren ertzetik; erakar zaitzala **Santa Katalinako** itsasargiaren seinaleak, itsasora erortzen diren **amildegien ondoko errepidean barrera**; edo hartu atsedean **Karraškioko hondartza** zabalean, **Lekeitioko herriaren bihotzetik doan pasealekua** gurutzatu ostean. Azken finean, hogei kilometroko kostak aukera paregabea ematen du ibilian eta modu osasuntsuan ezagutzeko bertako txokorik berezienak. Ibili, gelditu, begiratu eta disfrutatu, berriz ere bideari ekiteko.



Ondarroatik Saturraraneraino doan pasealekua.



Azrigerri (Ondarroa)



Ogella (Ispaster).

Beste hainbatetan, berriz, naturan aurki dezakegun ikuskizunik ederrenetarikoa eskaintzen digu Kantauri itsasoak. Zirrara eragiten du harkaitzen aurka apurtutako olatuek sortutako burrunba hotsak, naturaren indarra inoiz baino gertuago sumatzen dugunean. Dena den, urteko hilabete gehientsuenetan taula gainean dis-

frutatzeko baldintzarik egokienak eskaintzen dizkigu itsasoak. Paraje ezin hobea da horretarako Karraspioko hondartza zabala, neurrira egindako ikastaroak izango baitituzte eskura **surfa** lehen aldiz probatu nahi dutenek.

Ogellari ere estimu handia diote surflari trebeenek. **Flysch** artean ezkutaturik, harriz eta hondarrez eratutako hondartza basatia

gordetzen da Ispaster ondoan. Hain zuzen ere, naturarekiko harreman estu horrek euskal kostaldeko txokorik xarmangarrienetakoa egiten du Lea Artibai, kirolzaleek nekez aurkituko baitute paisaia aproposagorik, besteak beste, **urpeko irteerak egiteko, piraguan ibiltzeko** edo eta **SUP stand up paddlea** praktikatzeko taula gainean.

Jarduerak



Dzingua Kirol Ekintzak-Lekeitio

Tel. 94 465 37 07

Surf, Stand up paddle

www.dzinguakirolekintzak.com



UR Leketio Tel. 94 624 35 86

Kanoa-kayak, Arrauna, SUP Stand up paddle,

Step Board, Coasteering

www.urlekeitio.com



10 Hatza -Lekeitio

Tel. 688 807 485

Buzeo irteerak eta ikastaroak



Ondarroako "Antiguako Ama" trainerua. Argazkia: Iñaki Suarez.

Kirolez blai

Kantauri itsasoaren zipriztinek bainatuta, eta Oiz mendizerraren magalean kokatuta, kirol ekitaldiak antolatzeko eremu paregabean da Lea Artibai. Urteak dira maila goreneko probak antolatzen dituztela eskualdean, eta ospe handiaren jabe egin dira, esaterako, **triatloi** lasterketak eta itsaso zabalean egiten diren **traineru estropada** ikusgarriak. Mendexako hondartza, gainera, Kantauri **Surf** Liga-zirkuituko proba puntuagarri bihurtu da, eta bertan antolatzen dituzte **bodyboard** erakustaldiak ere. Osagarri horiei esker, jende andana hurbiltzen da inguruetako herrietatik, bai probak ikustera eta baita urtean zehar antolatzen diren hainbat **mendi martxa** eta **kayak** lasterketatan parte hartzera.

Ingurune apartaz gain, punta-puntako kirol-instalazioak ere badira eskualdeko herrietan, urte osoan erabilgarri daudenak eta eskaintza oparoak dituztenak. Horiei esker, esaterako, igeri egitea maite dutenek aukera egin dezakete hondartzen eta **igerileku** modernoen artean.



Naufragoak uhartean

Garraitz edo San Nicolas izenez ezagutzen den uharteak egiten du horren berezi Lekeitio inguruko paisaia. Mareak behera egin ahala, Karraspioko hondartza zabalak bidea irekitzen du bertaraino oinez iritsi ahal izateko. Ez galdu aukera, ezta harea artean gelditutako putzuetan oinak busti behar badituzu ere, bista ikusgarriak izango baitituzu zain. Baina kontutan hartu mareen ordutegia! Bat baino gehiago gelditu da preso bertan, Robinson Crusoe naufragoa bezala, mareak berriz gora egin eta urez inguratuta.

Postal panoramikoak Mendia

Erdi Arotik aurrera Bizkaiko Batzar Nagusiak deitze-ko suak pizten hasi ziren probintziako bost mendirik garaienetan, mundu guztiak bilkuraren berri izan zezan. Haietako bat da **Oiz mendia**, Lea Artibai eskualdearen hegoaldean altxatzen dena, 1.026 metroraino. Ez dago leku hobeagorik, eskualdeko tontorrek eta haranak begiztatzeko. Haren magaletik jaiotzen dira, hain zuzen ere, **Lea** eta **Artibai ibaiak**, Euskadi osoko errekarik garbienetakoak, eta haiek sortutako ibarrari segika aurkituko ditugu eskualde barneko belardi eta baso ederrak. **Iluntzar**, ekialdean, eta **Kalamua**, mendebaldean, dira eskualdeko beste bi talaia nagusiak, inguruko zelai berdeen eta baserrien zaindari.






Sta. Eufemia (Aulesti)



Markola erreka (Ziortza-Bolibar)



Barinaga (Markina-Xemein)



Eskualdearen zainak (ibilbideak)

Haran estu eta sakonen artetik Lea Arti-bai zeharkatzen duten hainbat eta hainbat ibilbide daude egokituta mendizale nahiz ibiltarientzat. Malkartsuak, lauak, laburrak, luzeak... Guztiak ala guztiak elementu historiko, artistiko eta naturalek duten interesaren arabera marraztu dira, ibiltariaren esperientzia osoagoa izan dadin.





Jarduerak



Sustraiak Natura-Etxebarria

Tel. 94 616 91 00

(Espeleologia, eskalada, puenting, rokodromo, BTT, ginkama, multiabentura, ibilbideak, ...)

www.sustraiaknatura.com

Izen handiak frontoietan

Lea Artibaiko paisaia urbanistikoren parte izan dira aspaldidanik frontoiak. Izen handiko pilotari, palista eta zesta-punta jokariak hazi dira gure pilotalekuetan, eta horietako zenbaitek kantxarik garrantzitsuuenetan jantzi izan dituzte gerrikoak, Euskal Herrian nahiz Ameriketako Estatu Batuetan. Markina-Xemeingo frontoia "Pilotaren Unibertsitatea" izenez da ezaguna, eta Berriatukoarekin batera zesta-punta partida garrantzitsuak jokatzen dira bertan, batik bat uda sasoian. Zaletasun horren eraginez, eskualdeko udalerrri guztietan daude pilotalekuak, urte osoan zehar erabiltzaileen eskura izaten direnak.

Markina-Xemeingo frontoian bisita gidatua. Telf. 688 813 775



Gordetako altxerrak

Lea Artibaira aurreneko aldiz iristen dena berehala ohartuko da kultura eta tradizioa arnastu egiten direla txoko eta zelai bazterretan. Leku gutxitan bezala zaintzen eta maitatzen ditugu hemengo ohiturak: ahoz aho kontatutako kondairak entzuten jarraitzen dira, arbasoek sukaldatutako jakiak goi-mailako jatetxeetan zerbitzatzen dira, bertoko dantzak ditugu **Kaxarranka, Mahaigainekoa** eta **Xemeingo ezpata-dantza**, eta kostaldean ospatzen diren Antzar eta **Arrantzale egunak** Euskal Herriko jairik berezienetakoak dira. Bidaiaria segituan jabetuko da historiaz bustitako lurraldean dagoela. **Euskara** jostaria iritsiko zaio belarriara, inon baino kantariagoa, izaera errotua duen jende adeitsuaren ahoetatik. Izan ere, Lea Artibai euskarak duen arnasmune handienetakoa da. Europako hizkuntzarik zaharrena izaki, euskal kulturaren altxor handienetarikoa ondo gordeta dago Lea Artibaiko herrixka eta baserrietan.

Tradizio horiek gertutik ezagutzeko, eskualdeko museo eta interpretazio zentroek informazio ugari ematen dute bailaretako ondareen inguruan, eta aukera ezin hobe da gure arbasoen bizimodua ulertu eta gertutik sentitzeko.



Museo eta interpretazio zentroak

1. BENGOLA NATUR ENERGIA INTERPRETAZIO ZENTROA (Munitibar)



2. KONTSEJU ZAHARRA INTERPRETAZIO ZENTROA (Barinaga, Markina-Xemein)
Landa bizitzako oinarriak eta mugimendu kooperatibistaren hasierak



3. MARIERROTA INTERPRETAZIO ZENTROA (Mendexa)



4. SANTA KATALINA ITSASARGIA 
Nabigazio teknologiaren lehen interpretazio zentroa (Lekeitio)



5. SIMON BOLIVAR MUSEOA
(Ziortza-Bolibar)



6. SOSOAGA DOLAREA Euskal Herriko txakolin dolarerik antzinakoena (Lekeitio)





Markina-Xemein



Ziortzako kolejiatako klaustroa.

Herrien bihotzean

Esqualdeko herrien izaera ulertzeko, murgildu zaitez galtzada-harrizko kale historikoetatik, jauregi eta dorretxe dotoreen paretek asko baitute esateko. Esaterako, Berriatuko **Etxe Pintxu** baserriak irudi bidezko kontakizuna gordetzen du fatxada ikusgarrian, garaiko aristokrazia ardatz duena. Liluramendua sortzen dute gaur egun oraindik ere Ondarroako **Andra Mari elizak** eta kortxelean dauden eskulturek, magiaz eta kondaira txundigarriez beteak, eta **Lekeitioko Andra Mariaren** Zeruratzearen basilika ederrak penintsulako harribitxirik handienetakoa gordetzen du altare nagusian.



Mendeetan zehar, gainera, eskualdeko ostatuetako nagusiek eta baserritarrek aterpe eman izan diete handik igaro diren erromesei. Egun, **Done Jakue bideak** Kantauriko kostaldetik egiten duen zehar-kaldian, Lea Artibai da Bizkairako sarbidea. Bertan dute zain bidaiariek Arretxinagako **San Miguel Ermita** ikusgarria, Markina-Xemeinen. Gernikarantz abiatu aurretik, Ziortza-Bolibarren egiten du etenaldia. Bertan aurkitzen da **Bizkaiko kolegiata bakarra**, Euskadiko Monumentu Nazional izendatu dutena. Dena den, Ziortza-Bolibar zerbaitengatik ezaguna bada, Simon Bolivarrengatik da. Izan ere, Ameriketako hainbat nazioren "askatzaile" izandako Bolivarren arbasoen sorterria dugu Lea Artibaiko herrixka.



Arretxinaga ermita Markina-Xemein.



Amorotoko plaza



Jaiak

Urtarrila

San Anton, Barinaga auzoa Markina-Xemein
San Bizente jaiak, Munitibar
Erregeen kabalgata

Otsaila/Martxoa

San Blas

Santa Ageda

Inauteriak: Larunbata-Ondarroa: Lantzoin kalejiri. Igandea: Markina-Xemein: "Hartza"-ren ibilbidea, "Zaragi Dantza" ea.

San Gregorio, Berriatua

Ekaina

Oletako jaiak, Amoroto

San Juanak, Lea Artibai

San Pedro, Lea Artibai (Lekeitio Kaxarranka, kilin-kala)

Zapato Azula, Ondarroa

Uztaila

San Martin, Amoroto

Karmen jaiak, Markina-Xemein

San Juan jaiak, Aulestin

Santiagoak, Etxebarria, Ispaster

Abuztua

San Pedro, Mendexa

Andra Mari jaiak, Ondarroa, Ziortza-Bolibar

Iraila

San Antolin jaiak Lekeitio

Andra Mari jaiak, Gizaburuaga

Santa Eufemi jaiak, Aulesti

San Migel jaiak, (Arretxinaga)
 Markina-Xemein, Ispaster

Urria

San Andres jaiak, Etxebarria

Abendua

Olentzero, Lea Artibai



Inauteriak gure eskualdeko ohituretan oso errotuta dauden ospakizunak dira. Horren lekuko dira, adibidez, Markinan inauteri igandez antolatzen dituzten errituak. Bertan, landa inguruneko identitatearen parte diren elementuak azalaratzen dira, asko mitologiari eta gizakiaren alderdi basatiari lotuak. Goizean zehar, Zerutxuko dantzariak zaragidantza egiten duten bitartean, Hartz iletsu eta erraldoi bat ingurukoak beldurtzen eta xaxatzen ibiltzen da.

Kultur agenda

Otsaila/Martxoa

Santa Ageda (bezperan kaleetan zehar kantuan), Lea Artibaiko herrietan

Lore eta landare azoka, Markina-Xemein

Kintxopeko Zaldi probak, Ispaster

Inauteriak: Larunbata: Lantzoiairen kalejira, Ondarroa

Igandea: "Hartza"ren ibilbidea, Zaragi Dantza eta Antzar jokoa, Markina-Xemein
Asteartea: Akulin enterru, Ondarroa

Martxoa/Apirila

Arte Drama (antzerkiak...), Aulesti

Zaldi Lasterketa (Karraspio hondartza), Mendexa

Zaldi Mando probak, Aulesti

Idi probak, Etxebarría



Maiatza

Arraun txapelketak, Ondarroa

Artisau eta landare azoka, Mendexa

Ekaina

Abeltzaintza, Zaldi eta behi azienden azoka, Etxebarria

Zenarruza Monastegiko kontzertu emanaldia, Ziortza-Bolibar

San Juan bezpera, herri guztietan suak, akelarrea...

San Pedro eguna, Kaxarranka dantza tipikoa eta Kilin-kala Santuarekin, Lekeitio

San Pedro eguna, Idi eta Zaldi probak, Barinaga auzoan, Markina-Xemein

Zapato Azule, Ondarroa

Uztaila

Euskal Ezkontza, Lekeitio

Nazioarteko Kale Antzerki jaialdia, Lekeitio

Abuztua

San Pedro Advincula eguna, Mahaigaineko dantza, Mendexa

Urria

Europako Ondare jardunaldiak (bisita gidatuak, hitzaldiak...), Lea Artibai

Zaldi probak, Ispaster

Euskal Zine bilera, Lekeitio

Marabilli Festibala (Artistak: idazleak, musikiariak, zinegileak, antzerkilariak, artista plastikoak, diseinatzaileak...Ondarroan batzea), Ondarroa

Lea Artibaiko Urriko Azoka: Blonde-Akitania ganduaren lehiaketa (Markina-Xemein)

Kintxopeko Zaldi mando probak (Aulesti)

Azaroa

Literatur Amuak (Antzerkia, bertsoak, kontzertuak, ipuin kontalaria, literatur lehiaketa), Ondarroa

Santa Zazili (Herriko musikariak kantuan)

Zaldi probak, Etxebarria

Abendua

Santo Tomas

Eskeuldeko tradiziozko zaharrek gorde arren, Lea Artibaik euskal eta nazioarteko kulturaren motor izaten jarraitzen du gaur egun ere. Aitzol Aramaio artistaren oromenez Ondarroan egiten duten **Marabilli** sormen festibalak euskal kulturaren erreferente nagusiengak biltzen ditu herrian bi urtetik behin. Kanpora begira, aldiz, Nazioarteko Kale Antzerki jaialdi ezaguna ospatzen dute Lekeitio. Uztailaren izaten da hitzordua, eta bai karrika nagusiak bai herriko plaza leporaino betetzen dira, udako festa giroaz eta goi-mailako ikuskizunaz gozatu nahi duten antzerkizaleez.



Postalezko bizipenak Gastronomia



Ez dadila inor beldurtu Ondarroako kaitik hurbil sirena hotsa entzuten badu goizeko ordutan. Turrune da. Herriko etxeetara iristen den soinu horrek iragartzen du porturatzen ari diren baporeak arrainez beteta datozela. Laster hasiko dituzte kaio esnatu berriek beren lehen hegaldiak, **arrain freskoaren** usainak utzitako arrastoaren atzetik.

Postalezko ikuspegiaren aurrean ainguratuta, denbora atsegina igarotzeko gonbita dira **herrietako tabernetako terrazak**.

Zer esanik ez, **pintxo** erakargarriekin apaindutako barra gainak. Esentzia guzti horiek barneratzeko, aukera ona da

herriarren ohiturei jarraituz tabernaz taberna gurutzatzea galtzada-harrizko karrikak, eztrariak busti eta tokian tokiko pintxoak dastatzeko.



Horretarako, ezin aproposagoak dira eskualdean ekoiztutako **txakolina** edo **sagardoa**, biak ala biak ahogozo handiko edariak.

Jatetxeak ere Kantauri itsasoak eskaintzen dizkigun lehengaiez hornitzen dira, bezeroari lehen mailako jakiak eskaintzeko: txipiroiak, olagarroa, lupina, urrurua, erreboiloa, bakailaoa, legatza... Baina eskualdeko gastronomia ezin daiteke ulertu baserriarren jarduerarik gabe. Horren erakusle dira ere, esaterako, inguruko herrietan astero-astero egiten dituzten **azokak**. Erosleek hitzordu ezin hobea dute, baserriko eta inguruko **baratzetako produktuak** dastatu eta ekoizleekin beraiekin hitz egiteko.





**Zerbitzari,
legatza Ondarroako erara,
mesedez!**

Lea Artibaiko jatetxeetan arrainak arrantzaleen eskutik iristen zaizkio platerera bezeroari. Freskotasuna eta kalitatea dira haien ezaugarri nagusiak, bai eta barietatea ere. Garai zaharretatik sukaldatu izan diren platerak jatetxerik onenetan zerbitzatzen dituzte gaur egun, eta horien artean dago Ondarroako erara prestatutako legatza. Ez altxatu mahaitik Kantauroko jaki preziatuenetarikoa dastatu gabe!



Gertuko eta kalitatezkoa

Bizitasun handiko guneak dira herrieta-ko alde zaharrak, oinezkoentzat egoki-
tutako espaloj zabalekin. Kale-argiekin
batera saltoki txikietako eta arropa-den-
detako erakusleihu erakargarriek ar-
giztatzen dituzte karrikak. Izan ere, Lea
Artibaiko merkataritza sarea dinamikoa
da oso, eta denda tradizionalen alda-
menean saltegi modernoak aurkituko
ditugu. Gainera, eskualdean betidanik
bultzatu izan da gertuko merkataritza,
eta horri esker kalitatezko produktuak
eta markak aurkitzeaz gain, adeitasun
handiz hartuko zaituzte saltzaileek.



Gastronomia agenda

Otsaila

Zuhaitz, landare eta baserri tresnerien azoka, Markina-Xemein

Martxoa

Udabirra Fest, Amoroto

Apirila

Artisau Azoka, Ondarroa

Nekazal eta Arrain Kontserba azoka, Berriatua

Maiatza

Iparraldeko Haizeak, Lekeitio

Antxoa Eguna, Ondarroa

Baserri/Okela Eguna, Markina-Xemein

Uztaila

Hegaluzealdia, Lekeitio

Abuztua

Lehenengo larunbatean Baserri azoka, Ondarroa

Bigarren larunbatean Baserri azoka, Lekeitio

Iraila

Baserri azoka, Ispaster

Urria

Lea Artibaiko Urriko Azoka Nagusia, Markina-Xemein

Abendua

Gabonetako euskal jakien azoka eta txahal jana, Amoroto

Santo Tomas azoka, Lekeitio



Bertoko produktuak

GAZTA

Baskaran (Markina-Xemein) 94 616 62 31

2016ko World Cheese Awards lehiaketako

Supergold izendapena

Barroeta (Markina-Xemein) 94 616 88 24

Larruz (Markina-Xemein) 657 794 529

TXAKOLINA

Axpe 94 616 82 85

Gurrutxaga 94 684 49 37

Harizpe 94 683 23 67

Laneko 94 684 20 26

SAGARDOA

Axpe 94 616 82 85

Laneko 94 684 20 26

BARAZKI KONTSERBAK

Barrenetxe 94 616 81 43

Laneko 94 684 20 26

PLATER PRESTATUAK

Elikatu 946841359

ARRAIN KONTSERBAK

Aguirreoa Pol. Gardotza (Berriatua)

Dentici (Markina-Xemein)

Guenaga (Berriatua)

Heisa Pol. Gardotza (Berriatua)

Matithor Pol. Gardotza (Berriatua)

Marmar Pol. Gardotza (Berriatua)

Ortiz (Ondarroa)

BERTOKO OKINDEGI

ETA EUSKAL PASTELA

KOKOTEAK Tate gozotegia

(Markina-Xemein) 94 616 60 69

EUSKAL PASTELA Labegur (Berriatua)

94 613 90 85

BASERRIKO OGIA

Tahona Bikiak (Lekeitio) 94 624 32 80

Meabe (Markina-Xemein) 94 616 63 65

IZOZKIAK

Helados Ruiz-Pole (Ondarroa)

Helados Lopez (Lekeitio)

Elikagaiak nahiz eta herriko hainbat dendetan aurki ditzakegun, aukera duzu

Produktion salmenta gune zentrallean eurretariko asko erosteko.

PRODUKTON

Eskualdeko produktuak

Helbidea: Erribera 39, Berriatua

Tel: 94 613 99 47

produktion@berriatua.org

www.oizegin.com



ENOTURISMOA (bisitak)

Axpe Sagardotegi-txakolindegia

946 16 82 85

Harizpe txakolindegia 946 83 23 67





BISITA ETA JARDUERA GIDATUAK ESKAINTZEN DITUZTEN ENPRESAK:

Lekeitioko Turismo Bulegoa (Lekeitio): 94 684 40 17

La guía km0 (Lekeitio): 637 084 901

Uhagon kulturgunea (Markina-Xemein): 695 935 560

Pilotalekua-Pilotaren unibertsitatea (Markina-Xemein): 688 813 775

The Basque Way (Ondarroa): 688 903 124

Suspergintza (Lekeitio): 946844175

ENOTURISMOA:

Axpe Sagardotegi/Txakolindegia 946 16 82 85

Harizpe Txakolindegia 94 683 23 67

KULTUR ARETOAK (Antzerkiak, Kontzertuak, Hitzaldiak, ...):

Uhagon Kulturgunea (Markina-Xemein) Facebook

Beikozini (Ondarroa) Egitaraua: www.beikozini.com

Argitaratzailea: Lea Artibaiko Garapen Agentzia

Diseinua eta maketazioa: KIÑUKA

Argazkiak: Kiñuka eta Lea Artibai Turismo

Testuak: Ander Gartzia Badiola

INFORMAZIO GEHIAGO:

Lekeitioko Turismo bulegoa



Tel: 94 684 40 17

Ondarroako Turismo bulegoa



Tel: 94 683 19 51

Berriatuko Informazio puntua



Tel: 94 613 99 47

Markina-Xemeingo Informazio puntua

Tel: 94 616 74 54

Eskualdeko informazio guztia ostatuak, jatetxeak, tabernak, gune interesgarriak, nola heldu,...

www.leaartibaiturismo.com



@leartibai



@LeaArtibaiTurismo



Sentsasioz blai

